a) Irurako Udalaren egoitza elektronikoan dagoen lan eskaintzak atalera sartu eta zein deialditan parte hartu nahi den aukeratu.

a) Acceder al apartado relativo a ofertas de empleo ubicado en la sede electrónica del Ayuntamiento de Irura y seleccionar la convocatoria en la que se quiera participar.

b) Eskabidea aurkezteko prestatu den inprimaki elektronikora sartu eta bertan adierazten diren jarraibideei jarraitu.

b) Acceder al formulario electrónico elaborado para la presentación de la solicitud y seguir las instrucciones que se señalan en el mismo.

c) Identifikazio eta sinadura elektronikorako, Irurako Udalak onartutako sistemak erabiliko dira, 1.5 artikuluan aipatu direnak.

c) Para la identificación y firma electrónica se utilizarán los sistemas admitidos por el Ayuntamiento de Irura a los que se ha hecho referencia en el artículo 1.5.

2. Merezimenduak alegatu eta egiaztatzeko, bai eta destinoak aukeratzeko ere, interesdunek aurreko atalean adierazitako prozedurari jarraituko diote, baina parte hartzen ari diren deialdian horretarako prestatutako inprimaki elektronikora joko dute.

2. Para la alegación y acreditación de méritos, así como para la elección de destinos, las personas interesadas seguirán el procedimiento indicado en el apartado anterior, si bien accederán al formulario electrónico elaborado a tal efecto, incluido en la convocatoria en la que estén participando.

3. Irurako Udalari egotz dakiokeen gorabehera tekniko batek 1. eta 2. idatz-zatietan adierazitako inprimaki elektronikoak eskuratzea eragozten badu, izapide horiek erregistro elektronikoaren bidez egin ahal izango dira.

3. Cuando una incidencia técnica imputable al Ayuntamiento de Irura imposibilite el acceso a los formularios electrónicos elaborados al efecto y señalados en los apartados 1 y 2, se podrán realizar dichos trámites mediante el registro electrónico.

4. Igorri beharreko dokumentazioa onetsitako

4. La documentación a remitir deberá ajustarse a los

formatuak eta tamaina-mugak edo egoitza elektronikoan unean-unean adierazten den beste edozein motatakoak izan beharko ditu.

formatos aprobados y limitaciones de tamaño o de cualquier otra índole que en cada momento se indique en la sede electrónica.

5. Transmisio elektronikoan akats formalak antzemanez gero, sistemak berak jakinaraziko dio interesdunari, dagozkion errore-mezuen bidez, zuzendu ditzan, hala badagokio.

5. En aquellos casos en que se detecten deficiencias de tipo formal en la transmisión electrónica, dicha circunstancia se pondrá en conocimiento de la persona interesada por el propio sistema mediante los correspondientes mensajes de error para que proceda, en su caso, a su subsanación.

6. Izapidea onartzen bada, sistemak pantailan itzuliko du eta/edo aurkezpen-egiaztagiria emango du, gorde dadin.

6. Si el trámite es aceptado, el sistema devolverá en pantalla y/o facilitará un justificante de presentación para su conservación.

**4. artikulua. Nahitaezko komunikazio eta jakinarazpen elektronikoak.**

**Artículo 4. Comunicaciones y notificaciones electrónicas obligatorias.**

1. 1. artikuluko 2. paragrafoan aipatzen diren pertsonek bitarteko elektronikoen bidez jaso beharko dituzte ordenantza honen xede diren eta argitaratzen ez diren hautapen prozesuetatik sortzen diren komunikazio eta jakinarazpenak.

1. Las personas a las que se refiere el apartado 2 del artículo 1 estarán obligadas a recibir por medios electrónicos las comunicaciones y notificaciones que se deriven de los procesos selectivos objeto de esta ordenanza que no sean objeto de publicación.

2. Aurreko atalean ezarritakoa gorabehera, Irurako Udalak edo, hala badagokio, Epaimahai Kalifikatzaileak komunikazioak eta jakinarazpenak bitarteko ez-elektronikoen bidez egin ahal izango ditu kasu hauetan:

2. No obstante lo establecido en el apartado anterior, el Ayuntamiento de Irura o, en su caso, el Tribunal Calificador, podrá practicar las comunicaciones y notificaciones por los medios no electrónicos en los siguientes supuestos:

a) Interesdunak Udaletxean bere kabuz agertu eta une horretan bere jakinarazpen pertsonala eskatzen duenean egiten denean jakinarazpena.

a) Cuando la notificación se realice con ocasión de la comparecencia espontánea de la persona interesada en las dependencias del ayuntamiento y solicite la comunicación o notificación personal en ese momento.

b) Bitarteko elektronikoen bidezko komunikazioak edo jakinarazpenak administrazio-jardunaren eraginkortasuna ziurtatu ezin duenean.

b) Cuando la comunicación o notificación por medios electrónicos no pueda asegurar la eficacia de la actuación administrativa.

3. Komunikazioa edo jakinarazpena bitarteko elektroniko eta ez-elektronikoen bidez egiten bada, ondorio guztiak egintzat joko dira behar bezala egindako lehen komunikazio edo jakinarazpenetik aurrera.

3. En los supuestos en los que se llegara a practicar la comunicación o notificación por medios electrónicos y no electrónicos, se entenderán producidos todos los efectos a partir de la primera comunicación o notificación correctamente

efectuada.

4. Udalak egindako jakinarazpen elektronikoetarako sarbidea Udalaren egoitza elektronikotik egingo da, eta interesdunak sinadura elektronikoaren bidez jakinarazitako egintzaren edukia eskuratzen duen unean egindakotzat joko dira, Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 43.2 artikuluko bigarren paragrafoan ezarritakoaren kalterik gabe.

4. El acceso a las notificaciones electrónicas practicadas por el Ayuntamiento se efectuará desde la sede electrónica del ayuntamiento y se entenderán practicadas en el momento en que la persona interesada acceda al contenido del acto notificado mediante su firma electrónica, sin perjuicio de lo establecido en el párrafo segundo del artículo 43.2 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común.

## XEDAPEN GEHIGARRIAK

*Lehen xedapen gehigarria.*

Hautapen prozesuaren ezaugarriak kontuan hartuta, salbuespen gisa, deialdiaren oinarrietan 1.2 artikuluan adierazitako tramiteak paperean egiteko aukera aurreikusi ahal izanen da.

*Bigarren xedapen gehigarria.*

Alkateak, langileen arloan eskumena duenak erabaki ahal izango du ordezko paperean betetzea, behar bezala arrazoitutako salbuespenezko inguruabarrak direla-eta, edo behar bezala frogatutako gorabehera tekniko batek sistemen ohiko funtzionamendua epearen barruan eragozten duenean.

*Hirugarren xedapen gehigarria.*

Hautapen prozesuaren ezaugarriak kontuan hartuta, salbuespenez, deialdiaren oinarriek aukera eman ahalko dute hautapen prozesuetako tramiteak bitarteko elektronikoen bidez egiteko, C2 azpitalde sailkapeneko eta lanbide taldeak biltzen dituen taldeko lanpostuetan sartzeko.

## DISPOSICIONES ADICIONALES

*Disposición adicional primera.*

Atendiendo a las características del proceso selectivo, excepcionalmente, las bases de la respectiva convocatoria podrán prever de forma adicional la posibilidad de realizar los trámites indicados en el artículo 1.2 en soporte papel.

*Disposición adicional segunda.*

El Alcalde o alcaldesa competente en materia de personal podrá acordar la cumplimentación sustitutiva en papel por circunstancias excepcionales debidamente motivadas o cuando una incidencia técnica debidamente acreditada haya imposibilitado el funcionamiento ordinario de los sistemas en plazo.

*Disposición adicional tercera.*

Atendiendo a las características del proceso selectivo, excepcionalmente, las bases de la respectiva convocatoria podrán determinar la obligación de realizar por medios electrónicos los trámites de los procesos selectivos para el acceso a plazas pertenecientes al subgrupo de clasificación C2 y al grupo que aglutina a las agrupaciones profesionales.

## XEDAPEN IRAGANKORRAK

*Lehen xedapen iragankorra.*

## DISPOSICIONES TRANSITORIAS

*Disposición transitoria primera.*

Irurako Udalak administrazio publikoen arteko elkarreragingarritasun osoa bermatu ezin duen bitartean, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen III. tituluko IV. kapituluan aurreikusitako moduan, datuen bitartekotzarako plataformetan edo horretarako gaitutako beste sistema elektroniko batzuetan kontsulta eginez, parte hartzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten agiriak paperezko euskarrian aurkeztuko dira.

En tanto el Ayuntamiento de Irura no pueda garantizar la plena interoperabilidad entre las Administraciones Públicas en los términos previstos en el capítulo IV del titulo III de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, mediante la consulta a las plataformas de intermediación de datos u otros sistemas electrónicos habilitados al efecto, la presentación de la documentación acreditativa del cumplimiento de los requisitos de participación se llevará a cabo en formato papel de acuerdo con lo previsto en las bases de la respectiva convocatoria.

*Bigarren xedapen iragankorra.*

Ordenantza honetan jasotakoak, ordenantza hau indarrean sartu ondoren Irurako Udaleko enplegatu publiko izateko deitzen diren hautapen prozesuetan aplikatuko da.

*Disposición transitoria segunda.*

Las previsiones de esta ordenanza serán de aplicación a los procesos selectivos de acceso a la condición de personal empleado público del Ayuntamiento de Irura que se convoquen con posterioridad a la entrada en vigor de la misma.

## AZKEN XEDAPENAK

*Azken xedapenetan lehena.*

Irurako Udaleko Alkateak behar diren ebazpen eta jarraibideak eman ahal izango ditu ordenantza hau aplikatu eta garatzeko.

*Azken xedapenetan bigarrena.*

Ordenantza honek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean hartuko du indarra.

## DISPOSICIONES FINALES

*Disposición final primera*.

El Alcalde del Ayuntamiento de Irura podrá dictar cuantas resoluciones e instrucciones fueran precisas en aplicación y desarrollo de la presente ordenanza.

*Disposición final segunda*.

La presente ordenanza entrará en vigor el día de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Irura, 2022ko urriaren 18an.

**BOZKETA.- AHO BATEZ ONARTU DA PROPOSAMENA.**

**5.- 0-2 URTE ARTEKO IRURAKO IKASTOLAREKIN SINATZEN DEN HITZARMENAREN ONARPENA 2022-2023 IKASTURTERAKO. 2022DILA0062.**

Alkateak adierazi ditu hitzarmen honen aurrekariak eta dirulaguntza zertara bideratzen den eta testuak dituen akatsak azaldu ditu, hala nola, dirulaguntza kopurua 3.600€koa dela eta 20 haur izan direla.

Esp.:2022DILA0062

**IRURAKO IKASTOLARI 0-2 urte arteko 2022-2023KO diru-laguntzaren eskaera onartzeko proposamena.**

2022ko urriak 6an 1433 sarrera zk. Irurako Ikastolak, diru laguntza eskaera egin zuen 2022 2023 ikasturteko 2 urteko gelako diru laguntza,2022/2023 ikasturtean matrikulatutako 2 urteko haur kopurua 20 izan da.

Irurako 2022-2024 dirulaguntzen plan estrategikoan jasoa dago dirulaguntza izendun zuzena.

Ogasun batzordean gaia aztertuta geratu da.

Hau dela eta, Udalbatzarrari proposatzen zaio:

1.- 2022ko aurrekontuko 1 0000.480.326.00.00 partidako eta Irurako Dirulaguntzen plan estrategikoan jasota dagoen bezala (2022-2024) 3.600€ak Irurako ikastolari diru laguntza emateko bideratzea, aipatutako zenbatekoaren %50 hitzarmena izenpetutakoan eta gainerako %50 gastuen eta sarreren balantzea aurkeztutakoan ordainduz.

HITZARMEN PROPOSAMENA:

Iruran, 2022ko urriaren an

**BILDURIK:**

Alde batetik, GORKA MURUA MACUSO Irurako Alkate-Lehendakari Jn.-a Irurako Udalaren Osoko Bilkurak 2022ko urriaren 18an hartutako erabakiz, ekintza honetan Udalaren izen eta ordezkaritzapean aritzeko egokiro baimendua izan dena eta nik lagunduta Irantzu Arrizabalaga Gainza And., Irurako Udalaren idazkari kontu-hartzailea fedea emateko legearen arabera.

Bestetik, N.A.N. 44.152.754E zenbakia duen, IMANOL AGUIRRE PEÑA Jn.., Irurako Ikastolako Lehendakaria, Ikastola honen izen eta ordezkaritzapean, 2020ko abenduaren 16an eginiko batzar orokorraren baitan .

Biak ekintza hau burutzeko ahalmen osoa onartzen dute.

**AURREKARIAK:**

**Lehena.-** Badira urte batzuk Irurako Ikastolak 2 urteko haurren eskolaratzeari ekiten diola. Aurtengo ikasturtean, 2022-2023, ume-kopurua 20koa izango denez, gela BAT izango ditu.
Guzti horregatik, ezinezkoa da Irurako Ikastolak dituen berezko baliabideekin bakarrik maila hau finantziatzea. Udal honek bestalde, zerbitzu hori mantentzeko finantzazioan laguntzea egokitzat jotzen du.

**Bigarrena.-** Honoko hitzarmen hau, Irurako Udalak, 2022ko urriaren 18an egindako Osoko Bilkuraren batzarraldian onartu zuen.

Hori dela eta, bi aldeek, honoko Hitzarmen hau onartzea erabakitzen dute, baina ondorengo klausulekin:

**LEHENA.-** Irurako Ikastolak, 2022-2023 ikasturtean, hala eskatzen duten 2 urte dituzten eta Irurako Udalerri honetan bizi diren haurrak eskolaratzeko konpromezua hartzen du, horretarako dagokion irakaslegoa kontratatu eta beharrezkoak diren gainontzeko ekintza-bideak burutuko dituelarik.

**BIGARRENA.-** Udal honek zerbitzua finantziatzen lagunduko du, irakaslearen lanak 2022-2023 ikasturtean zehar eta goizez bakarrik eragindako kostuaren %50 estaliko duen dirulaguntza emango duelarik, gehienez 3.600 € Irakaslearen arduraldia luzatzea erabaki ezkero, Irurako Ikastolaren kontura izango da bakarrik.

**HIRUGARRENA.-** Laguntza, ondorengo eran emango da:
- Hitzarmena sinatzerakoan, Irurako Udalak 1.800 €-tako dirutza ordainduko dio Irurako Ikastolari.

- Gainerakoa, 2023 ikasturteko ekainaren 30a baino lehenago ordainduko dio, baina, ikasturte osoari dagozkion irakaslearen nominak eta Gizarte Segurantzaren kotizazio-agiriak aurkeztutakoan.

**LAUGARRENA.-** Dena dela era, Zerbitzuaren erantzukizuna, bere arlo guztietan (lan arloan, G.S., zibila, administratiboa e.a.) Irurako Ikastolak izango du.

**BOSTGARRENA.-** Irurako Ikastolak ez badu Hitzarmena betetzen, aurreikusitako laguntza indargabetzea erakarriko du eta badagokio, kontutan harturik zertan ez den betetzen eta Hitzarmen honen xedea, Udalari guztia edo zati bat itzuli beharko dio.

Eta adostasunaren adierazgarri bi aldeek sinatzen dute ale bikoitzean eta ondorio bakarrerako igortzen den agiri hau, aleetako bat Irurako Ikastolari ematen zaiolarik, bestea, Udal Korporazio honek jasoz, guztiaren berri nik, Idazkariak fede ematen dudalarik adierazitako data eta lekuan.

**ALKATE-LEHENDAKARIA** **IRURAKO IKASTOLATIK**

**IDAZKARIA**

**BOZKETA.- AHO BATEZ ONARTU DA PROPOSAMENA.**

## 6.- DIRULAGUNTZEN ONARPEN PROPOSAMENA.

Alkateak adierazi du, Sexune dirulaguntza, hemendik aurrera dirulaguntza modura ematea erabaki da, eta Ikastola bera izatea sustatzailea eta Udalak diruz lagundu.

- **SEXUNE 2022DILA0064.**

**Esp.:**2022DILA0064
**GAIA:** IRURAKO UDALAREN ETA IRURAKO IKASTOLAREN ARTEKO HITZARMENA, *SEXU HEZIKETA PROGRAMA* BIDERATZEKO (2022-23)

**BATZORDEAREN DIKTAMINA**

Irurako Udalak, bere udalerriko haur eta gaztetxoen artean indarkeria matxistaren prebentzioa landu nahi du sexu heziketaren bidez. Horregatik, eta kontuan hartuz Irurako Ikastola herriko ikastetxe bakarra dela, Irurako Udalak Irurako Ikastolarekin lankidetza-hitzarmena sinatzea egoki ikusten du.

Sexune Elkarteak bideratu izan ditu saio hauek azken urteotan bi herrietako Ikastoletan, eta ikasle-entzako ez ezik, irakasle eta gurasoentzako ere formazio saioak eta aholkularitza saioak antolatu ohi ditu, bi kolektibo hauekin ere lanketa egitea ezinbestekoa jotzen dugulako.

Ogasun batzordean gaia aztertuta geratu da.

Hau dela eta, Udalbatzarrari proposatzen zaio:
1.- 2022-2024 Irurako dirulaguntzen plan estrategikoa aldatzea.
2.-Alkatea, Gorka Murua Macuso Jn, hitzarmen honek dakartzen kudeaketak egiteko izendatzea.

HITZARMEN PROPOSAMENA:

**IRURAKO UDALAREN ETA IRURAKO IKASTOLAREN ARTEKO HITZARMENA, *SEXU HEZIKETA PROGRAMA* BIDERATZEKO (2022-23)**

Iruran, 2022ko urriaren 4an

**BILDU DIRA**

Alde batetik, **Lorena Alonso Aramendia (NAN:** 72449182-X) Irurako ikastola Koop. Elkartearen zuzendaria, haren izen eta haren ordezkaritzan (IFK: F20086583; helbidea: Zillar kalea, 4, 20271 Irura).

Eta bestetik**, Gorka Murua Macuso** Irurako udaleko Alkate-Lehendakaria eta, Irurako udalaren izen eta ordezkaritzan.

Bi alderdiek hitzarmen hau sinatzeko nahikoa gaitasun aitortzen diote elkarri, eta honako hau

**ADIERAZTEN DUTE**

**LEHENA**: Irurako Udalak, bere udalerriko haur eta gaztetxoen artean indarkeria matxistaren prebentzioa landu nahi du sexu heziketaren bidez. Horregatik, eta kontuan hartuz Irurako Ikastola herriko ikastetxe bakarra dela, Irurako Udalak Irurako Ikastolarekin lankidetza-hitzarmen hau sinatu nahi du.

**BIGARRENA**: Irurako udalaren Emakume eta Gizonen Berdintasunerako udal plangintzan azaltzen dela hezkidetza eta sexu heziketaren programa, Gipuzkoan indarkeria matxistari aurre egiteko lan ildoaren baitan. Lanketa hau urtero egiten da, bai Irurako Ikastolan eta baita Anoetako herri Ikastolan ere, bi herrietako Udalek egitasmoaren kostu osoa finantzatuz.
Sexu heziketaren bidez gizarte parekideago baten aldeko bidean urrats garrantzitsu bat iruditzen zaigu, gaur egun gizartean errotuta dagoen bortizkeria matxistari aurre egiteko baloreak jorratzea da proiektu honen helburua, horretarako hainbat dinamika eta baliabide erabiliz, ikasleen adinari egokituta.
Sexune Elkarteak bideratu izan ditu saio hauek azken urteotan bi herrietako Ikastoletan, eta ikasleentzako ez ezik, irakasle eta gurasoentzako ere formazio saioak eta aholkularitza saioak antolatu ohi ditu, bi kolektibo hauekin ere lanketa egitea ezinbestekoa jotzen

dugulako, nahiz eta gurasoen aldetik batzuetan kosta egiten den inplikazioa lortzea.

**HIRUGARRENA:** Hitzarmen honen diru-ekarpenarekin ekimen hau eraman dezake aurrera Irurako Ikastolak, herriko haur eta gaztetxoengan eragiteko, indarkeria matxistaren prebentzioari begira.

**LAUGARRENA:** Irurako Udalak eta Irurako Herri Ikastolak bat egiten dugu herriko haur eta gaztetxoen garapena eta indarkeria matxistaren prebentzioa lantzeko helburuarekin; eta hitzarmen honen bidez proiektua sustatzeak eta garatzeak helburu horiek betetzea ekarriko du.

## KLAUSULAK

**LEHENA.- Hitzarmenaren helburua.**
Hitzarmen honen helburua hau da: Irurako Udalaren eta Irurako Ikastolaren arteko lankidetza-esparrua ezartzea, herriko haur eta gaztetxoen garapenean eragiteko, *sexu heziketa* ekimena sustatuz ikastetxean, indarkeria matxistaren prebentzioari begira.

**BIGARRENA.- Irurako Udalaren betebeharrak**

- ❑ Irurako Udalak Irurako Ikastolari 2022-23 ikasturtean 5.984,63 euroko dirulaguntza emateko konpromisoa hartzen du, goian aipatu dituen helburuak betetzeko eta proposatutako ekimena burutzeko. Dirulaguntza horrek finantzatuko du defizit kopuruaren %100a.
- ❑ *Sexu heziketa* proiektuaren baldintzak edo/eta aurrekontua aldatuko balira, Irurako Udalak konpromisoa hartzen du baldintza berriak aztertzeko eta, beharko balitz, egin beharreko aldaketak egiteko, baldin eta urte horretan onartutako aurrekontuek horretarako bide ematen badute.

**HIRUGARRENA.- Irurako Ikastolaren betebeharrak**

- ❑ Irurako Ikastolak, Sexune Elkarteak bideratzen duen *sexu heziketa* programan sustatzaile gisa parte hartzeko konpromisoa hartzen du, eta baita Irurako Udalari jakinarazi behar dion informazio guztia jakinarazteko ere.
- ❑ Irurako Ikastolak, *sexu heziketa* programa bideratzeko ikasleek behar duten materiala haien esku jartzeko konpromisoa hartzen du.
- ❑ *Sexu heziketa* programarekin lotutako jarduerei dagokienez, Irurako Ikastolak horiek bideratzen laguntzeko konpromisoa hartzen du.
- ❑ Irurako Ikastolak, ikasturte amaieran, ikasturteko memoria eta fakturak Irurako Udalari aurkezteko konpromisoa hartzen du.

**LAUGARRENA.- Hitzarmenaren indarraldia.**
Hitzarmen honek ondorioak izango ditu izenpetu ondorengo egunaz geroztik, eta 2022-23 ikasturterako hitzarmena izango da.
Irurako Ikastolak jasotako laguntza likidatu eta justifikatuko da ikasturte amaieran. Dirulaguntzak urteko defizit kopuruaren %100 finantzatzeko helburua duenez, Udalaren aurrean justifikatu gabe gelditu dena itzuli egingo da.
**BOSGARRENA.- Diru ekarpena eta zuriketa.**
Hitzarmen honetako bigarren klausulan aipatutako diru ekarpen zuzena honela egingo da:

1. Hitzarmena sinatu aurretik ikasturteko proiektua eta aurrekontua aurkeztu beharko ditu (Sexune Elkarteak prestatzen duena). Zuriketa 2023ko ekainaren 30a baina lehen egin beharko du jardunaren ikasturteko memoria eta balantze ekonomikoa aurkeztuz eta fakturen eta bestelako agirien kopiak erantsita. Ondoren hilabeteko epean jasoko du Irurako Ikastolak diru-ekarpen osoa.

**SEIGARRENA.- Hitzarmena deuseztatzeko arrazoiak.**
Hitzarmen hau deuseztatu ahal izango da:

- Izenpetzen duten bi alderdiek hala erabakita.
- Alderdiek hartutako konpromisoak larriki ez betetzeagatik.

**ZAZPIGARRENA.- Hitzarmenaren izaera.**
Hitzarmen honek sinatzaileen artean ondorio juridikoak ditu, baina ez du kontratu izaerarik, eta ez ditu bere baitan hartzen kontratu batek dituen prestazioak. Hitzarmenaren xedea da entitatea eta Udala helburu berarekin elkarlanean aritzea.
Sektore Publikoko Araubidea onartzen duen, urriaren 2ko, 40/2015 Legearen 47. artikuluan ezartzen diren hitzarmen-moten barruan kokatzen da hitzarmen hau, hain zuzen ere, administrazio publikoaren eta entitate pribatu baten artekoa, eta hitzarmenaren araubidea legearen VI. kapituluan xedatutakoari lotuko zaio. Modu horretan, hitzarmenaren helburua izango da entitate sinatzaileak Udalari emango dion laguntzari esker, arloaren kudeaketa hobetzea; udalak egingo duen ekarpenak ez du inoiz gaindituko hitzarmenean jasotako ekimenen gastua; eta hitzartzen den dirulaguntzak 38/2003 Dirulaguntzen inguruko Lege Orokorra bete beharko du.
Hitzarmen hau interpretatu eta betetzeko orduan sor daitezkeen gai gatazkatsuak aztertzea eta ebaztea administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren ardura izango da.

**ZORTZIGARRENA.- Ez betetzea.**
Hitzarmen honetan ezarritako baldintzetako edozein ez betetzea, hitzarmena berraztertzeko kausa izan daiteke, eta horrek ekar lezake hitzarmena baliogabetzea eta bidegabe jasotako diru-zenbatekoak itzularaztea.

**BEDERATZIGARRENA.- HIZKUNTZA BETEBEHARRAK**
Irurako Ikastolak Udalaren hizkuntza jarduera arautzeko planaren arabera jokatuko du, printzipio hauek oinarri hartuta:

- Proportzionaltasun-printzipioa bermatuko du, diruz lagundutako jardueraren ezaugarrien, xedearen eta hartzaileen arabera.
- Hizkuntza irizpideak diruz lagundutako jarduerei lotuta egongo dira.
- Diruz lagundutako jardueren komunikazioak edo argitalpenak egin behar direnean, lehentasuna emango zaio euskarari.
- Ikastolako ordezkariek eta *sexu heziketa* programaren ordezkariek Udalarekin ahozko eta idatzizko harremanak euskaraz izango dituzte, hori baita administrazio honen lan hizkuntza.

Eta zalantzak argitzeko edo laguntza eskatzeko aukera izango dute Udalaren Euskara departamentura joz.

**HAMARGARRENA.- Genero-berdintasunaren arloko betebeharrak.**
Pertsona edo erakunde onuradunak aplikatzekoa zaion indarreko araudi guztia errespetatu beharko du; eta bereziki Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea. Erakunde onuradunak, diruz lagundutako jardueran, honako printzipio orokorrak bete beharko ditu:

- Hizkera inklusiboa eta irudi ez sexistaren erabilera dokumentazio, euskarri eta errotulazio guztian. Jarduerak sustatzeko egiten dituen kartel, testu eta agirietako edukitan hizkuntzaren eta irudien erabilera ez sexista egin beharko du.
- Berdintasunean eragin positiboa izatea bermatzea.
- Genero ikuspegia eta parekidetasun irizpideak txertatzea proiektuetan.
- Proiektu eta memorietan sexuagatik banandutako datuak erabiltzea.
- Ez du sortuko sexuagatik bereizkeria zuzena edo zeharkakoa eragiten duen jarduerarik.

**HAMAIKAGARRENA.- Ingurumen betebeharrak.**
Pertsona edo erakunde onuradunek, oro har, ingurumeneko irizpideak hartu beharko dituzte kontuan beraien jardunean:

- Aurrezte eta energia eraginkortasuna.
- Hondakin frakzio ezberdinen sailkatze egokia, horiek sortzeari aurrea hartzeaz gain.
- Tokiko bioaniztasunari kalterik ez sortzea (habitat naturalak, espezieak eta prozesu ekologikoak).
- Mugikortasun iraunkorra sustatzea.
- Indarrean dagoen araudiak ezarritako gehieneko mugaz gaindiko zaratarik ez sortzea eta herritarrekiko eta ingurumenarekiko kalitate akustikoa bermatzea. Diru laguntzen lerro bakoitzaren deialdian edo dagokion hitzarmenean jarduera mota bakoitzari dagokion ingurumen irizpide bereziak zehaztu ahal izango dira.

**HAMABIGARRENA.- DATU BABESA**
Hitzarmenaren xedean adierazitakoaren arabera, lanak/zereginak/zerbitzuak egiteko, ez da beharrezkoa Irurako Udalarenak diren datu pertsonalak eskuratzea. Horrela, debekatuta dago Irurako Udalarenak diren datu pertsonalak tratatzea, eskuratzea eta ikustea.
Datu pertsonalak nahi gabe eta baimenik gabe ikusiz gero, erakundeak konpromisoa hartzen du ezagutu dezakeen informazioa sekretupean eta isilpean gordetzeko eta arduraduna den erakundeko datuen babesaren ordezkariari gertatutakoa berehala jakinarazteko.
Horiek horrela, erakundeko langileak behartuta daude datuak hirugarren pertsonei ez ezagutaraztera, transferitzera, ematera edo jakinaraztera, eta betebehar hori Irurako Udalarekin duen harreman juridikoa amaitu ondoren ere mantenduko da.
Oro har, Irurako Udalak ezarritako eta emandako informazioaren segurtasun neurriak eta jarraibideak bete beharko dira.

Eta goian azaldutakoarekin ados daudela frogatzeko, bi alderdiek honako Hitzarmen honen bi ale izenpetzen dituzte, adierazitako egunean eta lekuan.

| Irurako Udalaren izenean | Irurako Ikastolaren izenean |
|---|---|
| Sin.: Gorka Murua Macuso<br>ALKATEA | Sin.: Lorena Alonso Aramendia<br>ZUZENDARIA |

**BOZKETA.- AHO BATEZ ONARTU DA PROPOSAMENA.**

Alkateak adierazi du, proiektuak duen arrakasta ikusita dirulaguntza handitzea proposatzen du.

- **GU ERE BERTSOTAN 2022DILA0065.**

GAIA: **IRURAKO IKASTOLARI DIRULAGUNTZA *GU ERE BERTSOTAN* EKIMENA BIDERATZEKO**.

**AURREKARIAK:**

- Irurako Udalak *Gu ere Bertsotan* ekimena sustatu nahi du, herriko haur eta gaztetxoek, bertsolaritzaren bidez, alor hauek landu ditzaten: ahozko komunikazioa, sormena, jendaurrean egoteko eta hitz egiteko erraztasuna, ideiak ordenatzea, ondo komunikatzea…

- Proiektu hori sustatzeko, Irurako Ikastolari dirulaguntza eman dio, Gipuzkoako Bertsozale Elkartearen bidez eskoletan txertatu dezan ekimena.

- Ikusita ekimenak izan duen arrakasta eta Irurako haurren artean izan duen eragina, proiektuari bultzada emateko, Bertsozale Elkarteko bertsolariaren jarduna hamabostero izan beharrean astero izatea proposatu da (bi talderekin), 2023-2024 ikasturtean.

- Irurako Udalak Dirulaguntzen Plan Estrategikoan (2022-2024) aurreikusita duen dirulaguntza, urteko **2.200 eurokoa** da:

*Gu ere Bertsotan. Irurako Ikastolari dirulaguntza* - Hitzartua - 6.600 € - Partida: *1.0000.481.335.00.51*

**PROPOSAMENA:**

2023-2024 ikasturteari dagokion dirulaguntza (2024ko ekitaldia) **4.500 eurokoa** izatea, eta dagokion aldaketa egitea Plan Estrategikoan.

**BOZKETA.- AHO BATEZ ONARTU DA PROPOSAMENA.**

Alkateak azalpenak eman ditu eta adierazi du azken denboran lanketa bat egin dela eta eskualde mahaian proiektu amankomun bat martxan jarriko dela hainbat eragileekin, eragile bakoitzari bere rola ezarri zaiola eta , hori dela eta Galtzaundi izendatu dela koordinazioa aurrera eramateko eta hori dela eta dirulaguntzaren aldaketa.

- **GALTZAUNDI – TEM 2022DILA0066.**

GAIA: **TOLOSALDEKO EUSKARAREN MAHAIAREN DIRULAGUNTZA.**

**MAHAIAREN HELBURUA:**

Tolosaldeko Euskararen Mahaiaren (TEM) helburua da Tolosaldean euskararen normalizaziorako hizkuntza politika adostea, plan estrategikoak diseinatzea, ardurak eta egitekoak banatzea, eta ahalik eta modu efizienteenean plangintza horiek garatzea

**EUSKARAREN MAHAIAREN ERATZE AKTA:**

Tolosaldeko 25 udalek, UEMAk zein beste hainbat gizarte eragilek (Galtzaundi Euskara Taldea, Manuel Larramendi Kultur Bazkuna besteak beste), Tolosaldean euskararen normalizazioan jarduteko plan estrategikoa diseinatu eta garatzeko asmoz, Tolosaldeko Euskararen Mahaia osatzea erabaki dute.

Tolosaldeko eratze akta sinatzen dutenentzat estrategikoa da Tolosaldeko udal guztiak UEMAko kide izatea, denak udalerri euskaldunak izanik UEMAk garatzen dituen egitasmoak estrategikoak direlako udalerri guztietan garatzeko; eta Galtzaundi euskara elkartearekin hitzarmena edo akordioa sinatzea, herriz herri euskararen normalizazioan beharrezkoa den oinarri soziala aktibatzeko estrategikoa delako.

**KOORDINAZIO PARTEKATUA:**

2022. urtean TEMi bultzada emateko asmoz, mahaiaren koordinatzeko ardura UEMAk eta

Galtzaundik partekatzea proposatzen da. Bi eragileek adostu dituzte lan-metodoak eta elkargune bakoitzaren dinamizazioa hobetzeko hausnarketa ere egin da.

**EKARPEN EKONOMIKOA:**

Tolosaldeko udalek, ekimena sustatzeko, koordinazioaz arduratuko diren bi erakundeei egingo liekete ekarpen ekonomikoa; UEMA mankomunitateko ekarpena bata, eta Galtzaundi Euskara Taldeari hitzarmen bidezkoa bestea. Irurako Udalari egin zaion proposamena hauxe izan da:

| | GALTZAUNDI EUSKARA TALDEA | UEMA |
|---|---|---|
| IRURA | 3.038,50 € | 6.928,04 € |

**UDALEKO PLAN ESTRATEGIKOA ETA AURREKONTUA:**

Irurako Udalak 2022ko udal-aurrekontuan aurreikusitako ekarpena UEMAri:
- UEMA mankomunitatea – Ekarpena-Transferentzia - 7.238,00 € - Partida: *1.0000.421.335.00.00*

Irurako Udalak Dirulaguntzen Plan Estrategikoan 2022rako aurreikusita dituen dirulaguntzak:
- Galtzaundi Euskara Taldeari dirulaguntza - Hitzartua - 2.000 € - Partida: *1.0000.481.335.00.21*
- Tolosaldeko Euskararen Mahaiari dirulaguntza - Izenduna - 1.000 € - Partida: *1.0000.481.335.00.41*

**EKARPENERAKO PROPOSAMENA:**

2022an Irurako Udalak dagokion ekarpena egin dio UEMAri, mankomunitateko kide gisa: **6.928,04 €**.

Galtzaundi Euskara Taldeari, berriz, 2.000 euroko dirulaguntza eman dio, hitzarmen bidez.

Tolosaldeko Euskararen Mahaiarentzat aurreikusitako 1.000 euroak, Udalak oraindik eman gabe zituenak, Galtzaundi Euskara Taldeari ematea proposatzen da, TEM eratu duten eragileek hala proposatu dutelako, erakunde hau izango baita, UEMArekin batera, koordinazioa bideratuko duena.

Azkenik, Dirulaguntzen Plan Estrategikoan, 2023rako bi dirulaguntzak bateratzea proposatzen da (*1.0000.481.335.00.21* eta *1.0000.481.335.00.41* partidak), “Galtzaundi-TEM” gisa, 3.500 euroko urteko aurrekontuarekin.

**BOZKETA.- AHO BATEZ ONARTU DA PROPOSAMENA.**

**7.- KONTU-HARTZAILEAREN TXOSTENAK.**

- **2022. URTEKO 3 HIRUHILABETEKO BERANKORTASUN TXOSTENAREN BERRI EMAN.**

Kontu-hartzaileak zinegotziei egoeraren berri eman die.

TXOSTENA.

2022.ko 3º HIRUHILABETEAN EKITALDIAN ORDAINTZEKO BATEZ BESTEKO EPEA.

2/2012 Lege Organikoak, apirilaren 27koak, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantzen Iraunkortasunari buruzkoak, ekarri du batez besteko epea kontzeptua (OBBE). Kontzeptu honek azaltzen du zor komertziala ordaintzeko behar izan dugun denbora, edo, izan den atzerapena. Horrela Administrazio Publiko guztiek, gardentasun- ariketa bat eginez, ordaintzeko batez besteko epea argitaratu beharko dute.

Atxikita dauden orrietan Irurako Udalari 2022ko 3º hiruhileko ordainketa epeari buruzko txostenak jakinarazten dizkizuet.
Hau da,

-1º Hiruhileko Epea : 3,8 egun.
Lege barruko muga : 30 egun dira.

- **2022. 3 HIRUHILABETEKO URTEKO EXEKUZIO TXOSTENAREN BERRI EMAN.**

Kontu-hartzaileak zinegotziei egoeraren berri eman die.

**EXEKUZIO ESPEDIENTEA 1, 2 eta 3**
**Diruzaintzako aurrekontua eta egutegia**

Entitatea: IRURA
Ekitaldia: 2022
Hiruhilekoa: 3. hiruhilekoa

(zenbatekoa €-tan)

| Kontzeptua | Bilketa / Ordainketa errealak eta zenbatetsiak | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Itxitako hiruhilekoan metatutako bilketa / ordainketak (2) | | | | | | | Uneko hiruhilekoaren aurreikuspenak | | | | Ekitaldiko GAINERAKO bilketa /ordainketen aurreikuspena (5) |
| | Urtekoa | | | Itxitako ekitaldiak | | | GUZTIRA | Bilketa / Ordainketen aurreikuspena hilabeteka (3) | | | Bilketa /ordainketen aurreikuspena 4. hiruhilekoan (4) | |
| | OBBEaren kalkuluan sartuta EZ daudenak | OBBEaren kalkuluan sartuta daudenak | Guztira | OBBEaren kalkuluan sartuta EZ daudenak | OBBEaren kalkuluan sartuta daudenak | Guztira | | Urria | Azaroa | Abendua | | |
| **Funts likidoak epealdi hasieran (1)** | | | | | | | 1.067.132,30 | 1.934.361,27 | 1.220.388,25 | 506.381,22 | 1.934.361,27 | -207.803,80 |
| **Aurrekontuko kobrantzak** | 0,00 | 0,00 | 2.706.218,06 | 0,00 | 0,00 | 384.886,70 | 3.090.104,76 | 72.613,96 | 72.613,96 | 72.613,96 | 217.641,89 | 0,00 |
| 1. Zuzeneko zergak | | | 594.267,28 | | | 24.147,11 | 618.414,39 | 10.281,87 | 10.281,87 | 10.281,87 | 30.845,61 | 0,00 |
| 2. Zeharkako zergak | | | 694,92 | | | 0,00 | 694,92 | 9.768,36 | 9.768,36 | 9.768,36 | 29.305,08 | 0,00 |
| 3. Tasak eta bestelako sarrerak | | | 252.591,60 | | | 11.896,30 | 264.487,90 | 13.580,70 | 13.580,70 | 13.580,70 | 40.742,10 | 0,00 |
| 4. Transferentzia arruntak | | | 1.247.892,88 | | | 227.017,94 | 1.474.910,82 | 38.838,06 | 38.838,06 | 38.838,06 | 116.514,18 | 0,00 |
| 5. Ondare sarrerak | | | 1.800,08 | | | 1.565,00 | 3.365,08 | 44,97 | 44,97 | 44,97 | 134,92 | 0,00 |
| 6. Inbertsio errealak besterenganatzea | | | 0,00 | | | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| 7. Kapital transferentziak | | | 0,00 | | | 120.260,35 | 120.260,35 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| 8. Finantza aktiboak | | | 0,00 | | | 0,00 | 0,00 | | | | 0,00 | |
| 9. Finantza pasiboak | | | 607.971,29 | | | 0,00 | 607.971,29 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| **Aurrekontuz kanpoko kobrantzak** | 0,00 | | 0,00 | | | 0,00 | 0,00 | | | | 0,00 | |
| **Aplikatu gabeko kobrantzak** | | | 0,00 | | | 0,00 | 0,00 | | | | 0,00 | |
| | | | | | | | | | | | | |
| **Aurrekontuko ordainketak** | 896.964,61 | 1.192.384,21 | 2.089.318,72 | 38.876,38 | 79.177,27 | 118.162,86 | 2.207.471,37 | 786.498,99 | 786.498,99 | 786.498,99 | 2.368.496,96 | 0,00 |
| 1. Langileria gastuak | 614.769,75 | | 614.769,75 | 0,00 | | 0,00 | 614.769,75 | 133.814,75 | 133.814,75 | 133.814,75 | 401.444,25 | 0,00 |
| 2. Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak | | 487.113,28 | 487.113,28 | | 65.726,40 | 65.726,40 | 552.839,68 | 134.765,89 | 134.765,89 | 134.765,89 | 404.297,66 | 0,00 |
| 3. Finantza gastuak | 505,86 | | 505,86 | 0,00 | | 0,00 | 505,86 | 3.164,71 | 3.164,71 | 3.164,71 | 9.494,14 | 0,00 |
| 4. Transferentzia arruntak | 238.716,76 | | 238.716,76 | 38.975,38 | | 38.975,38 | 277.692,14 | 65.088,62 | 65.088,62 | 65.088,62 | 195.265,86 | 0,00 |
| 5. Kreditu globala eta bestelako ustekabeak | 0,00 | | 0,00 | 0,00 | | 0,00 | 0,00 | 3.600,00 | 3.600,00 | 3.600,00 | 10.800,00 | 0,00 |
| 6. Inbertsio errealak | | 705.250,93 | 705.250,93 | | 13.450,87 | 13.450,87 | 718.701,80 | 436.819,06 | 436.819,06 | 436.819,06 | 1.310.457,19 | 0,00 |
| 7. Kapital transferentziak | 42.962,14 | | 42.962,14 | 0,00 | | 0,00 | 42.962,14 | 7.412,62 | 7.412,62 | 7.412,62 | 22.237,86 | 0,00 |
| 8. Finantza aktiboak | 0,00 | | 0,00 | 0,00 | | 0,00 | 0,00 | 166,67 | 166,67 | 166,67 | 500,00 | 0,00 |
| 9. Finantza pasiboak | 0,00 | | 0,00 | 0,00 | | 0,00 | 0,00 | 1.666,67 | 1.666,67 | 1.666,67 | 5.000,00 | 0,00 |
| **Aurrekontuz kanpoko ordainketak** | 6.414,41 | | 6.414,41 | | | 0,00 | 6.414,41 | | | | 0,00 | |
| **Aplikatu gabeko ordainketak** | | | 0,00 | | | 0,00 | 0,00 | | | | 0,00 | |
| | | | | | | | | | | | | |
| **Funts likidoak denboraldi amaieran** | | | | | | | 1.934.361,27 | 1.220.388,26 | 506.381,22 | -207.803,80 | -207.803,80 | -207.803,80 |

**Gutxieneko diruzaintza zehaztean gogoan hartutako kontzeptuak edota elementuak eta oharrak**

(1) Hau islatuko da "Funts likidoak epealdi hasieran" kontzeptuan:
- "Itxitako hiruhilekoan metatutako bilketa / ordainketak" zutabean, EKITALDI HASIERAN zeuden funts likidoen zenbatekoa.
- "Uneko hiruhilekoaren aurreikuspenak - Bilketa / Ordainketen aurreikuspena hilabeteka" zutabeetan, HILABETE BAKOITZAREN HASIERAN aurreikusitako funts likidoen zenbatekoa.
- "Uneko hiruhilekoaren aurreikuspenak - Bilketa / Ordainketen aurreikuspena hiruhilekoan" zutabean, UNEKO HIRUHILEKOAREN HASIERAN zeuden funts likidoen zenbatekoa.
- "Ekitaldiko GAINERAKO bilketa / ordainketen aurreikuspena" zutabean, UNEKO HIRUHILEKOAREN AMAIERAN aurreikusitako fondo likidoaren zenbatekoa.

(2) "Itxitako hiruhilekoan metatutako bilketa / ordainketak" zutabeetako zenbatekoak bat datoz amaitutako hiruhilekoaren amaierara arte METATUTAKO bilketa/ordainketen GUZTIZKOAREKIN.

(3) "Uneko hiruhilekoaren aurreikuspenak - Bilketa / ordainketen aurreikuspena" zutabeetako zenbatekoak bat datoz dagokion HILABETEAN aurreikusitako bilketa/ordainketen zenbatekoekin, uneko edo itxitako ekitaldikoak diren bereizi gabe.
(4) "Uneko hiruhilekoaren aurreikuspenak" zutabeko Bilketa / ordainketen zenbatekoa bat dator uneko hiruhilekoan egitea aurreikusitako guztizko zenbatekoarekin.

(5) "Ekitaldiko GAINERAKO bilketa / ordainketen aurreikuspena" zutabeetako zenbatekoak bat datoz ekitaldian egitea aurreikusitako Bilketa/Ordainketen GUZTIKOAREKIN, uneko edo itxitako ekitaldikoak diren bereizi gabe.

Irurako udala

# ORDAINKETA EPEAREN INFORMAZIOA

Toki entitatea: IRURA
Ekitaldia: 2022
Hiruhilekoa: Hiruhilabetea 3

## 1. Hiruhilekoan egindako ordainketak. Ordainketa epea obligazioa onartu zenetik hasita.

### 1.1. Sailkapen ekonomikoaren arabera

| Hiruhileko ordainketak | Ordainketa epea (egunak batez beste) | | Hiruhilekoan egindako ordainketak | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | Legezko epearen barruan | | Legezko epetik kanpo | |
| | Guztira | Epez kanpokoena | Ordainketa kopurua | Zenbateko osoa | Ordainketa kopurua | Zenbateko osoa |
| **Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan** | **3,37** | **45,21** | **367** | **130.386,04** | **2** | **98,25** |
| 20 - Errentamenduak eta kanonak | 3,38 | | 9 | 3.755,68 | 0 | 0,00 |
| 21 - Konponketa, mantentze-lanak eta kontserbazioa | 2,93 | | 47 | 23.251,40 | 0 | 0,00 |
| 22 - Materiala, hornidura eta beste batzuk | 2,25 | 45,21 | 303 | 99.998,96 | 2 | 98,25 |
| 23 - Kalte-ordaina zerbitzuagatik | 1,00 | | 8 | 3.380,00 | 0 | 0,00 |
| 2X - Besteakoak | | | 0 | 0,00 | 0 | 0,00 |
| **Inbertsio errealak** | **5,00** | | **7** | **173.705,72** | **0** | **0,00** |
| 6X - Inbertsio errealak | 5,00 | | 7 | 173.705,72 | 0 | 0,00 |
| **Aurrekontuari aplikatu gabeko ordainketak*** | | | **0** | **0,00** | **0** | **0,00** |
| Aurrekontura aplikatzeko dauden ordainketak | | | | | | |
| **Guztira** | **4,21** | **45,21** | **374** | **304.091,76** | **2** | **98,25** |

* 2. eta 6. kapituluari dagozkion fakturak soilik

### 1.2. Epearen arabera

| Egun kopurua | Egindako ordainketak | | | |
|---|---|---|---|---|
| | Faktura kopurua | % | Zenbateko osoa | % |
| 30 egun edo gutxiago | 374 | 99,47 | 304.091,76 | 99,97 |
| 31etik 40 egunetara | 1 | 0,27 | 13,55 | 0,00 |
| 41etik 50 egunetara | 1 | 0,27 | 84,70 | 0,03 |
| 51tik 60 egunetara | 0 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| 60 egun baino gehiago | 0 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| **Guztira** | **376** | **100,00** | **304.190,01** | **100,00** |

## 2. Ordaindu gabe geldituu diren fakturak. Epea obligazioa onartu zenetik hasita.

| Hiruhilekoa amaitzean ordaindu gabe dauden fakturak eta ordainagiriak | Epea (egunak batez beste) | | Hiruhilekoa amaitzean ordaintzeko daudenak | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | Legezko epearen barruan | | Legezko epetik kanpo | |
| | Guztira | Epez kanpokoena | Eragiketa kopurua | Zenbateko osoa | Eragiketa kopurua | Zenbateko osoa |
| **Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan** | **2,00** | | **55** | **45.004,39** | **0** | **0,00** |
| 20 - Errentamenduak eta kanonak | 2,00 | | 8 | 6.777,26 | 0 | 0,00 |
| 21 - Konponketak, mantentze-lanak eta artapena | 2,00 | | 11 | 6.772,68 | 0 | 0,00 |
| 22 - Materiala, hornidurak eta bestelakoak | 2,00 | | 36 | 31.454,47 | 0 | 0,00 |
| 23 - Kalte-ordainak zerbitzuagatik | | | 0 | 0,00 | 0 | 0,00 |
| 2X - Bestelakoak | | | 0 | 0,00 | 0 | 0,00 |
| **Inbertsio errealak** | **2,00** | | **2** | **23.653,82** | **0** | **0,00** |
| 6X - Inbertsio errealak | 2,00 | | 2 | 23.653,82 | 0 | 0,00 |
| **Aurrekontuari aplikatu gabeko fakturak*** | | | **0** | **0,00** | **0** | **0,00** |
| Aurrekontura aplikatzeko daudenak | | | | | | |
| **Guztira** | **2,00** | | **57** | **68.658,21** | **0** | **0,00** |

* 2. eta 6. kapituluari dagozkion fakturak soilik

0,00

## 3. Hiruhilekoa amaitzean obligazioa onartu gabe duten fakturak eta ordainagiriak

### 3.1. Erregistroan idatzi zirenetik hiru hilabetetik gora daramatenak

| Hiru hilabete ondoren obligazioa onartu gabe duten fakturak eta ordainagiriak | Epea (egunak batez beste) | Kopurua | Zenbateko osoa |
|---|---|---|---|
| Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan | 113,00 | 1 | 94,38 |
| Inbertsio errealak | | 0 | 0,00 |
| Aurrekontura aplikatzeko daudenak | | 0 | 0,00 |
| **Guztira** | **113,00** | **1** | **94,38** |

### 3.2. Erregistroan idatzi zirenetik daramatzaten egunak

| Obligazioa onartu gabe duten fakturak eta ordainagiriak | Obligazioak onartu gabeko fakturak | | | |
|---|---|---|---|---|
| | Faktura kopurua | % | Zenbateko osoa | % |
| 30 egun edo gutxiago | 57 | 96,61 | 27.085,77 | 99,31 |
| 31 eta 60 egun bitartean | 0 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| 61 eta 90 egun bitartean | 1 | 1,69 | 94,38 | 0,35 |
| 90 egun baino gehiago | 1 | 1,69 | 94,38 | 0,35 |
| **Guztira** | **59** | **100,00** | **27.274,53** | **100,00** |

## 4. Entitatearen ordainketen batez besteko epea (OBBE)

| Hiruhilekoaren OBBE | Ordaindutako eragiketak | | Ordaindu gabeko eragiketak | | OBBE |
|---|---|---|---|---|---|
| | Ratioa | Zenbatekoa | Ratioa | Zenbatekoa | |
| IRURA | 4,21 | 304.190,01 | 2,00 | 68.658,21 | 3,60 |

OBBEari buruzko oharrak:

Kontu-hartzaileak emandako informazioarekin Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

**8.- HAUTESKUNDE SINDIKALEN EMAITZEN BERRI EMAN.**

Alkateak azaldu du izan diren hauteskunde sindikalen emaitza eta Iker Ugalde Gorostiaga brigadako kidea izendatu dutela LABeko sindikatuaren aldetik.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

**Alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 19:25tan eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.**